AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

69

1470/2012 EBAZPENA, azaroaren 23koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena; honen bidez lekualdatze-lehiaketako epaimahai kalifikatzailea izendatzen da, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetako Teknikari laguntzaile sanitarioen lanbide-taldekoentzat.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren ekainaren 20ko 796/2012 Ebazpenaren bitartez, osasun zerbitzu-erakundeetan destinoa izango duten Teknikari espezialista sanitarioen lanbide-taldeko lekualdatze-lehiaketa deitu zen (EHAA 173. zk., 2012ko irailaren 5ekoa).

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiak lekualdatze-lehiaketa kalifikatuko duen epaimahaia izendatu zuen, ebazpen horren 7 oinarrian ezarritakoari jarraikiz.

Adierazitakoagatik, langileen alorrean indarrean den legeriak aitortzen dizkidan ahalmenez baliatuz, hauxe

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren ekainaren 20ko 796/2012 Ebazpenaren bitartez deitu zen Teknikari laguntzaile sanitarioen lanbide-taldekoen lekualdatze-lehiaketako epaimahai kalifikatzailea izendatzea. Epaimahai hori Ebazpen honen I. eranskinean agertzen diren kideek osatuko dute.

Bigarrena.– Ebazpen honek eman den egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Ebazpen hau EHAAn argitaratzeko agintzea.

Laugarrena.– Deialdiko 11. oinarrian ezarritakoaren babesean, ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkez dakioke Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea emango da, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen denetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko azaroaren 23a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
JULIÁN PÉREZ GIL.

I. ERANSKINA

EPAIMAHAI KALIFIKATZAILEA

TEKNIKARI LAGUNTZAILE SANITARIOAK

Epaimahaiburua:

– Titularra: Murua Navarro, María Flora.
– Ordezkoa: Peña González, María Luz.

Lehen epaimahaikidea:

– Titularra: Gómez Martínez de Lahidalga, Ana Rosa.
– Ordezkoa: Anguiano Alfonso, Josefina.

Bigarren epaimahaikidea:

– Titularra: Santamaría Cortezón, María Begoña.
– Ordezkoa: Bilbao Lafuente, Miren Josune.

Hirugarren epaimahaikidea:

– Titularra: Hernández Vidal, M. Elena.
– Ordezkoa: Manzanares Aldaba, Francisca.

Laugarren epaimahaikidea:

– Titularra: Altonaga Garitano, Nerea.
– Ordezkoa: Barriuso Amo, María Begoña.

Bosgarren epaimahaikidea:

– Titularra: Jubierrez Altable, Guillermo.
– Ordezkoa: De La Iglesia Vega, Alberto.

Idazkaria:

– Titularra: Rodríguez Alvarez, Antonio Miguel.
– Ordezkoa: Pujana Uriarte, Ana Patricia.